



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urtarrilaren 30a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa (3. or.).

I. Sarrera (4. or.).

II. Iritzia (8. or.).

II.1. Udalaren 2017ko Kontu Orokorrari buruzko finantza-iritzia (9. or.).

II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (9. or.).

III. Finantza egoera bateratuak (10. or.).

III.1. 2017ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (10. or.).

III.2. 2017 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (11. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2017ko abenduaren 31n (11. or.).

III.4. 2017ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua. (12. or.).

IV. Konklusioak eta gomendioak (13. or.).

IV.1. Iruñeko Udalaren aurrekontu orokorra (13. or.).

IV.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2017-12-31n (14. or.).

IV.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea. (15. or.).

IV.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena (16. or.).

IV.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (17. or.).

Eranskina: Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuaren oroitidazkia, 2017ko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

LABURPEN EXEKUTIBOA

Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiko kontuei eta kudeaketa finantzarioari buruz Kontuen Ganbera honek egindako azterketaren laburpen gisa, honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 2017ko ekitaldiko finantzen egoera-orriek, oro har, eragiketen osotasuna islatzen dute, aplikatzekoak diren kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioei jarraituz.

- Udalaren 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoera egonkorra eta saneatua da, haren adierazle ekonomiko eta finantzario nagusiek agertzen duten bezala; halere, horietako batzuek okerrera egin dutela ikusten da. Hala ere, zorra jaitsi egin da, eta kreditu-kalifikazioa, berriz, hobera egin du aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.

- Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren esparruko arau fiskalak betetzen dira, gastu araua izan ezik; horrek ekarri du Foru Komunitateko Administrazioak plan ekonomiko finantzario bat onetsi eta izapidetzea.

- Udalaren barne kontroleko sistema indartu beharra dago, bereziki langileen arloari dagokionez, eta kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egin behar dira.

- Kontratazio-prozedurak, oro har, kontratu-esparruaren arabera badira ere, gure ustez beharrezkoa da Udalak zerbitzuen plangintza hobetu dezan, horrela saihesteko, besteak beste, zerbitzuen prestazioak jarrai dezala behin aurreko kontratuen indarraldia amaituta dagoenean.

- Balorazio-ponentzia gaurkotu gabe dago oraindik ere, Ganbera honek gaurkotze hori behin eta berriz gomendatu duen arren.

- Langileen arloari dagokionez, lanpostu hutsak plantillako lanpostuen ehuneko 42 dira; horietatik, ehuneko 67 aldi baterako beteta daude. Plantillan, lanpostu hutsen kopuru aipagarri bat badago. Lanpostu horiek aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarrien arabera eskain litezke; horrek aukera emanen lioke Udalari behin-behinekotasuna gutxitzeko.

Langile funtzionarioen eta lan-kontratupekoen akordio kolektibo indardunak Foru Komunitatean langileei aplikatzeko zaien araudia gainditzen duten eta hartatik bereizten diren ordainsari-kontzeptu eta -kasuak jasotzen ditu.

- Aldaketa bat egin da Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eta Haur Eskolak erakunde autonomoaren sukalde- eta garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa-modalitatean, eta aldaketa horrek eragina izanen du etorkizuneko ekitaldietan. Horrek berekin ekarri du langile-kopurua handitzea, bai Udalean, bai erakunde autonomoan ere, zeren eta langileak plantilletan lan-kontratu mugagabea duten langile ez-finkotzat jaso baitira.

Zuzeneko kudeaketako lehen urte horren emaitza, aurreko urteko kudeaketaren kostuarekin alderatuta, desberdina izan da bi zerbitzuetan. Izan ere, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kudeaketak kostu handixeagoa izan du, eta Haur Eskolak erakundearen sukalde- eta garbiketa-zerbitzuen kudeaketak, berriz, kostu txikiagoa izan du.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2018rako jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du; honako hauek osatzen dute kontu hori:

- Entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua, zeinean jasotzen baitira aurrekontuaren likidazio-espeditentea, egoera ekonomiko eta ondarekoaren espeditentea eta finantzen espeditentea, bai eta entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontuaren eranskinak ere.
- Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietateen kontua.
- Kontu Orokorraren eranskinak.

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da gure iritzia ematea honako honi buruz: ea Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen, alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei buruz ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Kontu Orokorraren finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Udalari 2017ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Iruña udalerrri bat da, 2017ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 197.138 biztanle zituen eta 25,1 Km²-ko azalera duena.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organoek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

Udalaren 2017ko egitura administratiboan zortzi alor egon dira 2017ko urrira arte; data horretatik aurrera, eta egituraren aldaketa baten bidez, 11 alorren arabera egitura bat ezarri da, Alkatetzarena barne. Alor horiek une hauetan hamar zuzendarik eta hamar idazkari teknikok zuzentzen dituzte.

Udalak honako ente hauek dauzka zerbitzu publikoak kudeatzeko:

- Erakunde autonomoak:
 - a) Udalaren haur eskolak, haur eskolen zerbitzuaren kudeaketarako.
 - b) Hirigintzaren Udal Gerentzia, Iruñeko udalerrriaren hirigintzaren kudeaketarako.
- Merkataritza-sozietateei dagokienez, Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:

Enpresa	Partaidetzaren portzentajea	Xede soziala
Comiruña SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico SA	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Asimec SA	100	Etxez etxeko laguntza
Animsa SA	77,69	Udal informatika.
Mercairuña SA	51	Handizkako merkatuak

2016ko abenduaren 30ean, Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak etxeko laguntza zerbitzua (aurrerantzean, ELZ) udalekotzea erabaki zuen, zerbitzua emateko toki entitatearen beraren langileen eta bitarteko propioen bidezko zuzeneko kudeaketaren hautua eginez. Horrenbestez, Asimec SA udalaren merkataritza-sozietatea desegin da, zerbitzu hori emateko sortua baitzen, eta haren langileak Udalaren beraren langilerian subrogatu dira lan-kontratu mugagabeko langile gisa.


Sozietateko Batzar Nagusiak 2017ko maiatzaren 29an erabaki zuen sozietatea desegin eta likidatzea, Administrazio Kontseiluko kideak kargugabetzea eta likidatzaileak izendatzea. 2017ko ekitaldiaren itxieran, sozietatea likidatu eta azkentzeko zenbait merkataritza-jarduketa geratzen ziren egiteko; halere, egiaztatu dugu azkentze-prozesua amaitu egin dela, zeren eta 2018ko ekainean behin betiko azkentzea inskribatu baita Merkataritza Erregistroan.

- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalarari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina, Ganbera honen ustez, fundazio pribatu bat da.

6

Grafikoki, honako hau da egitura indarduna:



(1) Alkatezaren Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa, Administrazioaren Koordinazio Teknikoa –Udal Gerentzia eta Bulego Estrategikoa– daude haren pean

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2017ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren Sektore Publikoa:

	Aitortutako eskubideak	betebeharrak	Langileak, 2017-12-31n
Udala	194.577.360	196.940.228	1.610
Hirigintza Gerentzia	8.057.916	6.502.727	27
Haur eskolak	8.781.899	8.633.385	244
-Bateratzearen doitzeak	-12.456.325	-12.456.325	
Guztira	198.960.850	199.620.015	

2017an, Udalak 6.804.621 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 3.784.672 euroko ekarpena, berriz, Hirigintza Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak:

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatuen batez besteko kopurua
Comiruña SA	503.593	374.116	129.477	5
Mercairuña SA	1.284.243	1.097.328	186.915	12
ANIMSA	7.325.165	7.313.294	11.871	107
Pamplona Centro Histórico SA	5.372.901	4.521.579	851.322	3
Asimec SA	381.793	350.219	31.574	11

- Fundazioa:

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatuen batez besteko kopurua
Gayarre Antzokia	2.139.409	2.206.757	-67.348	15

Horretaz gainera, Erruki Etxeak honako datu ekonomikoak dauzka:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatuen batez besteko kopurua
Erruki Etxea	19.004.060	18.529.725	404.335	224

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia).

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen dugu, Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak direla eta. Kontu horien laburpena hirugarrenean ematen dugu. Laugarren ataletan, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak egindakoa, erantsi dugu.

Azterketa-lana 2018ko ekaina eta iraila bitartean egin du auditoriako bost teknikariek eta auditore batek osatutako lantaldeak, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzarekin ere izan dute.

Jarduketa horren emaitzak Iruñeko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituena alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Iruñeko Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen III. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko arduraduna. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2018ko urriaren 4an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Kontu Orokorra egiteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta. Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorrean akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen ditu gure iritzia funtsezko.

II.1. UDALAREN 2017ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- Balantzean ez da erregistratu udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko etorkizuneko betebeharren hornidura. Udalak 2009an azterlan aktuarial bat egin zuen pentsio horiei buruz, eta urtean 22,1 milioiko batez bestekoa kalkulatu zuen 2017tik 2019ra doan aldirako.

IRITZIA

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRTITZIA

IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III FINANTZA EGOERA BATERATUAK**III.1. 2017ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**
(Udala eta erakunde autonomoak)**Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa**

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Langile-gastuak	1	86.891.271	3.988.194	90.879.465	89.699.031	89.534.201	164.830	99	45
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	72.435.701	-1.182.018	71.253.683	67.392.094	56.777.198	10.614.896	95	34
Finantza-gastuak	3	2.550.000	0	2.550.000	999.202	857.977	141.225	39	0
Transferentzia arruntak	4	16.493.002	-4.282.477	12.210.525	11.454.362	10.330.966	1.123.396	94	6
Kontingentzia funtsa	5	50.000	0	50.000	0	0	0	0	0
Inbertsio errealak	6	15.403.719	12.954.441	28.358.160	14.456.639	7.106.250	7.350.389	51	7
Kapital-transferentziak	7	2.331.000	0	2.331.000	1.809.618	593.104	1.216.514	78	1
Finantza-aktiboak	8	429.000	0	429.000	180.015	180.015	0	42	0
Finantza-pasiboak	9	8.707.000	4.959.755	13.666.755	13.629.054	12.314.882	1.314.172	100	7
Gastuak, guztira		205.290.693	16.437.895	221.728.588	199.620.015	177.694.593	21.925.422	90	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Zuzeneko zergak	1	52.125.000		52.125.000	51.908.402	48.729.748	3.178.654	100	26
Zeharkako zergak	2	5.850.000		5.850.000	6.076.237	5.684.377	391.860	104	3
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	3	28.751.600		28.751.600	32.226.849	28.425.983	3.800.866	112	16
Transferentzia arruntak	4	97.673.027		97.673.027	98.115.172	97.255.618	859.554	100	49
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.835.500		2.835.500	2.742.663	2.159.847	582.816	97	1
Inbertsio errealen berrerentzea	6	3.994.775		3.994.775	5.181.707	5.090.828	90.879	130	3
Kapital-transferentziak	7	6.653.653		6.653.653	2.541.306	2.121.973	419.333	38	1
Finantza-aktiboak	8	427.200	16.437.895	16.865.095	168.514	33.605	134.909	1	0
Finantza-pasiboak	9	6.979.938		6.979.938	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		205.290.693	16.437.895	221.728.588	198.960.850	189.501.979	9.458.871	90	100

III.2. 2017 EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2016ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	209.813.444	198.960.850
Aitorturiko betebeharrak	-196.241.785	-199.620.015
Aurrekontu-emaizta	13.571.659	-659.165
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-5.453.428	-2.885.470
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	3.729.575	1.701.280
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	8.609.767	10.490.115
Aurrekontu-emaizta doituak	20.457.573	8.646.760

III.3. DIRUZAINZA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2017KO ABENDUAREN 31N

(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	Ekitaldia 2016	Ekitaldia 2017	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	27.292.844	25.901.587	-5
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	11.088.007	9.473.608	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	32.992.877	30.493.965	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	126.806	2.478.806	
(+) Ordainketen itzulketak	124	124	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-16.875.126	-16.510.337	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-39.843	-34.579	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-37.345.193	-33.500.549	-10
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-24.615.028	-21.925.422	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-5.067.953	-3.758.581	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-7.519.244	-7.693.298	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-149.393	-129.624	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	6.425	6.376	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	54.049.781	47.124.899	-13
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	21.249.244	21.249.244	0
Diruzaintzako gerakina, guztira	65.246.676	60.775.181	-7
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	17.909.505	19.328.553	8
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	23.358.812	26.335.989	13
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	23.978.358	15.110.639	-37

III.4. 2017ko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZE BATERATUA.

(Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA eta Asistencia Municipal en Casa SA udal enpresak)

Deskribapena	Itxieraren zenbatekoa, 2017. urtean	Deskribapena	Itxieraren zenbatekoa, 2017. urtean
A IBILGETUA	1.226.138.277	A FUNTS BEREKIAK	1.222.918.483
1 Ibilgetu materiala	535.303.288	1 Ondarea eta erreserbak	785.248.776
2 Ibilgetu ez-materiala	22.616.327	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	17.103.619
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	659.205.441	3 Kapitaleko diru-laguntzak	420.566.088
4 Herri-ondasunak	0	B ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0
5 Finantza-ibilgetua	9.013.220	4 Hornidurak	0
B HAINBAT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	70.736.977
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	70.736.977
C ZIRKULATZAILEA	103.138.330	D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	35.621.146
7 Izakinak	11.478.528	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	35.586.567
8 Zordunak	42.721.226	6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	34.579
9 Finantza-kontuak	48.924.058		
1 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	14.508		
1 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0		
Aktiboa, guztira	1.329.276.606	Pasiboa, guztira	1.329.276.606

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, atal honetako azken apartatuan, Ganberaren iritziz, Udalak kudeaketa-alor garrantzitsuetan, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera, aintzat hartu beharko lituzkeen ondorio eta gomendio nagusiak ematen ditugu.

IV.1. IRUÑEKO UDALAREN AURREKONTU OROKORRA

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2017rako hasierako aurrekontu bateratuak 205,29 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak biltzen zituen hasierako aurreikuspenetan, hurrenez hurren.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ondoren, 16,44 milioi eurokoak –hasierako kredituen ehuneko zortzi egiten dute–, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuek 221,73 milioi euro egiten dute.

Aurrekontuaren likidazioa

2017an, gastuak 199,62 milioi eurokoak izan ziren, ehuneko 90eko betetze-mailarekin eta ehuneko 89ko ordainketa-mailarekin. 2016koak baino ehuneko 1,72 handiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2017an 198,96 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 90eko eta 95eko betetze- eta kobrantza-mailarekin, hurrenez hurren. 2016arekin alderatuta, gutxitzea ehuneko 5,17koa izan zen.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili den eta nola finantzatu den Udalak eta haren erakunde autonomoek 2017an gastatutako 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-iturria	Zenbatekoa
Langileak	45	Tributu bidezko diru-sarrerak	40
Bestelako gastu arruntak	40	Transferentziak	51
Inbertsio errealak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	9
Kapital-transferentziak	1		
Finantza-pasiboak eta -aktiboak	7		

Ondoren, 2016ko eta 2017ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

	2016	2017	Aldea (%) 2017/2016
Diru-sarrerak, guztira	209.813.444	198.960.850	-5
Gastuak, guztira	196.241.785	199.620.015	2
Diru-sarrera arruntak	195.316.113	191.069.324	-2
Funtzionamendu gastuak	165.158.385	168.545.487	2
Kapitaleko diru-sarrerak	14.334.569	7.723.012	-46
Kapitaleko gastuak	21.558.438	16.266.257	-25

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2017ko guztizko diru-sarrerak ehuneko bost egin dute behera aurreko ekitaldikoekin alderatuta. Haien izaerari erreparatuta, jaitsiera gertatu da bai diru-sarrera arruntetan, bai kapitalekoetan ere. Nabarmenezkoa da kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 46 jaitsi direla.

- 2017ko gastuek ehuneko bi egin dute gora aurreko ekitaldikoekin alderatuta; halere, funtzionamendu-gastuek ehuneko bi egin dute gora kapitalekoak ehuneko 46 jaitsi diren bitartean. Kapitaleko gastuei dagokienez, bistan da, 2015-2016 aldian ez bezala, inbertsioaren erritmoa jaitsi egin dela, eta 2016an 21,56 milioikoa izatetik 2017an 16,27 milioikoa izatera pasa dela.

IV.2. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIO BATERATUA 2017-12-31n

Ondoren, 2017ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2016	2017	Aldea (%) 2017/2016
Aurrezki gordina	30.157.728	22.523.838	-25
Finantza-zama	9.309.403	14.628.256	57
Aurrezki garbia	20.848.325	7.895.582	-62
Aurrekontu-emaitza doitua	20.457.573	8.646.760	-58
Finantza-zamaren adierazlea*	% 4,77	% 7,66	61
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehuneko*	% 15,44	% 11,79	-24
Zorpetze-ahalmena (%)	% 10,67	% 4,13	-61
Zorra, guztira	86.053.529	72.354.390	-16
Biztanle bakoitzeko zorra	440	367	-18
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	23.978.358	15.110.639	-37

* Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Diru-sarrera arrunten jaitsierak eta funtzionamendu-gastuen igoerak aurrezki gordinaren ehuneko 25eko jaitsiera ekarri dute. Bestalde, finantza-zamaren handitzeak aurrezki garbia ehuneko 62 jaitea ekarri du.

- 2017. urtean, behera egin du zorpetze-ahalmenak, zeren eta aurrezki gordina gutxitu eta finantza-zama handitu baita; halere, adierazle horren 2017ko igoera bat dator zorraren amortizazio handiagorekin, eta nabarmentzekoa da zorra 13,70 milioi euro jaitsi dela –ehuneko 16ko jaitsiera da hori–.

2016ko superabita aplikatuz, 4,96 milioi euroko amortizazio aurreratu bat egin da; eragiketa hori aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudiarekin batera etorri egin da. 2017an, aurreko ekitaldian bezala, ez da mailegu berririk kontratatu.

- Arriskuen kalifikaziorako agentzia batek kredituen kalifikazioa berrikusi du, eta “BBB+” mailatik “A-” mailara igo du, perspektiba iraunkorarekin; horrek esan nahi du interesak eta printzipala ordaintzeko gaitasun egokia badagoela.

- Nabarmentzekoa da aurrekontu-emaitza doitua ehuneko 58 jaitsi dela, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak, berriz, ehuneko 37ko jaitsiera izan duela. Hala eta guztiz ere, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, 2017ko ekitaldiaren itxieran, 15,11 milioikoa izan da; horrek oraindik ere aukera ematen du etorkizuneko ekitaldietan aurrekontu-aldaketak finantzatzeko.

Gerakinaren barruan, 20,15 milioi euroko zenbateko atxiki bat jasotzen du; horren arrazoia Udalaren eta Hirigintzako Gerentziaren arteko salerosketa-eragiketa bat da, Lezkairuko poligonoko lurzati batzuen, 2009ko ekitaldian egina. Zenbateko hori bat dator Gerentziak lurzati salmentatik finantzatzeko dagoen zenbatekoarekin; salmenta horrek egin gabe jarraitzen du 2017ko ekitaldiaren itxieran.

Hori dela eta, aurrekontu-esparruarekin bat, aipatutako zenbateko atxiki horri eusten zaio, hain zuzen ere hura saldu bitartean diruzaintza-gerakinaren zertarakoa eta erabilera bermatzeko.

Azken batean, egoera finantzarioari dagokionez, Udalak funtzionamendu-gastuak estaltzeko behar adinako finantzaketa jasotzen du diru-sarrerara arrunten bitartez; horrek aukera ematen dio aurrezki gordin positiboa izateko eta finantza-zama bere gain hartzeko; horren emaitza, aurrezki garbi positiboa da. Hala eta guztiz ere, esan beharra daukagu ezen adierazle horiek, bai eta aurrekontu-emaitza doitu eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina ere, jaitsi egin direla aurreko ekitaldikoekin alderatuta.

Halaber, nabarmentzekoa da zorraren amortizazio aurreraturako gaitasuna, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren araudia aplikatuta; horrek aukera eman du, gainera, zorpetze-maila gutxitzeko.

IV.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNeko ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNeko HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionalako irizpideak jarraituta, honako enteak jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera, erakunde autonomoak (Hirigintzako Gerentzia eta haur eskolak), merkatukoak ez diren udal sozietateak¹ (Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A. y Animsa, S.A.) eta Teatro Gayarre Fundazioa.

Administrazio publikotzat hartutako entitateek honako datu hauek izan dituzte:

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioak:
- a) 8,36 milioi euroko finantzaketa-ahalmena sortu dute.

Finantzaketa-ahalmena

	Zenbatekoa, 2017
Finantzaz besteko diru-sarrerak	223.402.334
Finantzaz besteko gastuak	210.484.003
Saldo ez-finantzarioa	12.918.331
SEC dela-eta egindako doikuntzak	-4.561.746
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. Kapituluetako diru-sarreraren kobrantzak	-1.206.303
Europar Batasunaren diru-laguntzak	-109.958
Transferentzien bateratzea	-293.468
Geroratutako ordainketa	-646.298
Kontabilitate-sortzapeneko aldeak ²	-2.305.719
Finantzaketa-ahalmena	8.356.585

b) 2017ko ekitaldiko gastu konputagarria 3,19 milioi euro handiagoa da gastuaren gehieneko muga baino; horrekin, gastu-araua urratzen da, zeren eta gainditzen baita 2017rako baimendutako aldearen tasa, ehuneko 2,1ekoa.

¹ Ente bat merkatukoa dela ulertzen da haren produkzioa ekonomikoki aipagarriak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.

² 2.353.396 euroko zenbateko bat jaso da, zeina udal montepioaren finantzetarengatik jasotako gehiegizko zenbatekoak erregularizatzeko banaketa-kontuaren atxikipenari baitagokio.

Gastuaren araua

	Zenbatekoa, 2017
2016ko gastu konputagarri bateratua	159.639.487
% 2,1eko igoera	3.352.429
Diru-sarreraren igoeraren aurreikuspena	1.343.384
2017rako aurreikusitako gastuaren muga	164.335.301
2017ko gastu konputagarri bateratua	167.524.038
2017ko gastuan izandako desbideratzea	3.188.737

Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren esparrua betez, Osoko Bilkurak 2018-2019 aldirako "Plan ekonomiko eta finantzarioa" onetsi du. Plan hori, gero, Foru Komunitateko Administrazioan izapidetu da, eta Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak 2018ko uztailan eman dio behin betiko onspena.

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 36,3 da, ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

b) Merkataritza-zorraren iraunkortasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gaindizten 30 egun baino gehiagotan berankortasunari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarrita dagoen gehieneko epea.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Lehenengo hiru hilekoa	3,02
Bigarren hiru hilekoa	2,56
Hirugarren hiru hilekoa	12,65
Laugarren hiru hilekoa	7,64

Hala eta guztiz ere, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia betetzen bada ere, aipatu beharra daukagu azken adierazle horretan okertze bat gertatu dela, aurreko ekitaldietan lortutako ratioarekin alderatuta.

IV.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Lehentasunezko zat jotzen dugu 2016ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-lanetan emandako gomendio hauek betetzea:

- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea.*

- *Osoko Bilkurak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatu behar diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen alde aurretiko kontu-hartzaitza egiterakoan.*

- *Balorzio-ponentziaren berraztertze-prozesua amaitzea.*

- *Kontratuen indarraldia dela-eta 6/2006 Foru Legean ezarritako gehienekoa errespetatzea, eta kontratuen plangintza egokia ezartzea, egungo araudi-esparruan aurreikusi gabeko luzapenak saihesteko.*

- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak ordaindu behar diren kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onetsi dezan.*

IV.5. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

IV.5.1. Alderdi orokorrak

2017ko ekitaldiko aurrekontua eta exekuzio-oinarriak behin betiko onetsi ziren, eta indarrean sartu ziren 2017ko otsailaren 23ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, NAO) argitaratu ondoren.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2017ko aurrekontuen likidazioa 2018ko apirilaren 27an onetsi zen. Kontu Orokorra Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen 2018ko urriaren 4an.

2017ko kontuei dagokionez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak, Gayarre Antzokiaren kontuak, eta Udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresa publikoen kontuak –Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA, Animsa eta Mercairuña SA– kanpoko profesionalek auditatu dituzte. Salbuespena Asimec SAren kontuak izan dira, zeren eta 2017ko ekitaldian desegite eta likidazio prozesuan egon baita. Autoretzako txosten guztiek aldeko iritzia dute, Haur Eskolena izan ezik, bertan aldeko iritzia agertzen baita baina legezketasunaren arloko salbuespenarekin.

Egin den azterketatik, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Aurrekontuaren espedientean, ez dira lau urteko inbertsio-planik egin.
- Haur Eskolen salbuespena, zeina 221.378 euroko zenbatekoan kuantifikatu baitugu, oinarrituta dago adjudikatutako bi hornidura-kontratu egotean, adjudikaziorako inongo prozedurarik jarraitu gabe, bai eta kontratuaren esparruan aurreikusitako gehieneko epea gainditu duten bi luzapen egotean ere. Aipatu beharra daukagu ezen azken egoera hori jada salbuespen gisara adierazi izan zutela kanpoko auditoreek 2016ko auditorian, eta luzapen horiek gure txostenean islatu zirela.
- Indarrean jarraitzen dute, Hirigintzako Gerentziari dagokionez, kanpoko auditoreen txosteneko gomendioek, ekitaldiaren itxieran likidazioa eta behin betiko kontabilitate-itxiera egiteko duten poligonoei buruzkoek –diruzaintzako gerakinean ageri dira–. Zenbatetsi den kopurua 4.121.833 eurokoa da.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren likidazio-espedientea eta Kontu Orokorra legez ezarritako epeetan onestea.*
- *Aurrekontuaren espedientea osatzea araudian eskatzen den dokumentazio guztiarekin.*
- *Haur Eskolak erakunde autonomoaren kontratazioan kontrola indartzea, garaiz kanpoko luzapen justifikatu gabeak saihesteko, bai eta zerbitzuen prestazioari legezko estaldura emanen lioketen lizitazio berrien izapidetzea ere.*

IV.5.2. Udal zerbitzuak udalekotzea

Etxeko laguntza zerbitzua

Osoko Bilkurak 2016ko abenduaren 30ean onetsi zuen Udalak berak zuzenean kudea zezala etxeko laguntza zerbitzua toki entitatearen langile eta bitarteko propioekin, zerbitzu publikoak tokiko esparruaren baldintzetan kudeatzeko modu gisa³; aurrez, Asimec SA sozietate publikoak eta enpresa pribatu batek kudeatzen zuen zerbitzu hori. Erabaki hori aginduzkoak diren txosten tekniko, ekonomiko eta juridikoetan oinarrituta hartu zen.

³ Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 192. artikulua, eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 85. artikulua.

Aipatu beharra dago erabakia hartzeko oinarri gisa hartu ziren txostenek erakusten zutela aurreikuspen batzuk zenbatespenetan oinarrituta zeudela; horrenbestez, Udalak behin betiko lan-kostuen inguruko aipatutako zalantzak ebatzi beharko zituen.

Kudeaketa-modu berriak honako hau ekarri du 2017an:

- Batera biltzea lehenago Asimec SA sozietate publikoak eta 2013ko ekitalditik zerbitzu horren adjudikazio-hartzaile izan den enpresa pribatuak kudeatutako zerbitzua. Horrenbestez, Udalaren sozietate publikoa desegin eta likidatu zen, eta enpresa pribatuarekiko kontratua ebatzi egin zen.
- Aipatutako enpresetako langileen zati handi bat Udalaren plantilla organikoan subrogatzea lan-kontratu mugagabea duten langileen gisara; subrogazio hori 2017ko martxoaren 1etik dago indarrean.
- Horretarako, 2017ko ekitaldiko plantilla organikoak 194 lanpostu sartzeari islatu zuen. Lanpostu berri horien behin betiko estaltzea merezimenduan eta gaitasunean oinarritutako hautapen prozesu egokiaren bitartez egin beharra dago.

Haur Eskolak erakunde autonomoaren jantoki eta garbiketa zerbitzuak

Haur Eskolak erakundearen Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 12an onetsi zuen entitateak berak zuzenean kudeatzea, langile eta bitarteko propioekin, sei zentrotako jantoki-zerbitzua eta hiru zentrotako garbiketa-zerbitzua, lehenago enpresa pribatuak kudeatzen zituztenak. Erabaki horrek honako hau ekarri zuen:

- Aipatutako zerbitzuak ematen zituzten enpresa pribatuekiko kontratu-harremana amaitzea.
- Aipatutako enpresetako langileen geroko subrogazioa, eta 2017ko plantilla organikoan kontratu mugagabeko 23 lanpostu berri sartzeari.

Alderaketa ekonomikoa, kudeaketa-eredua aldatuta

Kudeaketa-eredua aldatzeak kostuan eragin duen diferentzia honako taula hauetan ageri dena da:

Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ)	Aurreko kudeaketa-eredua ELZ	Gaur egungo kudeaketa-eredua ELZ	Diferentzia	Aldea (%)
1. kapitulua	845.005	6.112.664	5.267.659	623
2. kapitulua	2.964.446	39.608	-2.924.838	-99
4. kapitulua	2.093.276		-2.093.276	-100
6. kapitulua	7.220		-7.220	-100
Guztira	5.909.947	6.152.272	242.325	4,10

Haur Eskoletako jatordue-tako eta garbiketako zerbitzua	Aurreko kudeaketa-eredua Haur eskolak	Gaur egungo kudeaketa-eredua Haur eskolak	Diferentzia	Aldea (%)
1. kapitulua	701.959	1.095.967	394.008	56
2. kapitulua, elikadura	462.978	228.517	-234.461	-51
2. kapitulua, garbiketa	363.118	91.767	-271.351	-75
Guztira	1.528.055	1.416.251	-111.804	-7

Kudeaketa-ereduaren aldatetaren emaitza desberdina izan da ELZn, zeinak kostu handiagoa baitu kudeaketa modu berriarekin, eta Haur Eskoletan, non kostua txikiagoa izan baita.

ELZri dagokionez, dokumentazioan ez da jasota ageri zuzeneko arretaren jarduera-mailak gora egin duenik, nahiz eta zerbitzu horren udalekotzearen ondoriozko jarduerak berekin ekarri duen harekin lotutako zeharkako arretako orduak nabarmen gora egitea.

Halaber, kontuan hartu beharra dago ezen Udalak oraindik ere ez dituela bereganatu langileen subrogazioaren ondorioz bere gain hartu behar zituen –horixe zioten Udalaren barneko txosten batzuek– langile gastuetako batzuk.

Gomendatzen dugu berrikustea ea udalekotu diren zerbitzuen kudeaketa-eredu berriak egiazki zerbitzu eraginkorragoak eta efizienteagoak dakartzan, udalekotzeari buruzko 2016ko abenduko erabakiaren oinarrietan aipatutako baldintzetan.

IV.5.3. Barne-kontrola

Kontu-hartzaitzaren barne-kontrola dela eta, honako hau esan behar dugu:

- Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena. Udalean, Kontu-hartzaitzak ez du kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren gaineko kontrolik egiten.

- Udalaren barne kontrola soilik kontu-hartzaitzaren eginkizunaren bitartez egiten da, gastuen alde aurreko fiskalizazio mugatuaren bitartez, exekuzio-oinarrietan ezarritako moduan. Fiskalizazio horri buruz, honako hau aipatu beharra daukagu:

a) Eduki ekonomikoa duten egintza batzuetan, alde aurretik aurrekontu-krediturik badagoela, gastua aurrekontu-partidaren arabera dela edo gastu hori organo eskudunak onartuta dagoela egiaztatzeaz haragoko jarduketak egin dira. Hala eta guztiz ere, gehitutako jarduketa horiek ez daude determinatuta eta ez dira ageri fiskalizatutako espedientean edo dokumentuan.

b) Geroztik ez da exekuzio-oinarrietan aurreikusitako osoko fiskalizazioa egiten, aurretiko fiskalizazio mugatua ekarri zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin ordezkagarri batetik abiatuta.

c) 2017ko ekitaldian, ez da ageri Kontu-hartzaitzak egindako eragozpen-oharrik.

- Diru-sarreraren fiskalizazioari dagokionez, ez dira egiten haiek kontabilizatu ondorengo egiaztatze-jarduketak, zeinak baitira oinarrien arabera derrigor egin beharrekoak, toki-esparruaren araberrako laginketa- edo auditoretza-teknikak erabiliz.

- Erakunde autonomoetan, kontu-hartzaitzaren eginkizuna Udalaren beraren langileen bitartez betetzen da, kontu-hartzaitza eskuordetuaren eginkizunez baliatuta, eta kontrol finantzarioa, berriz, kanpoko auditoretza-enpresen bitartez. Ez da eraginkortasunaren kontrolik egiten.

Gure gomendioak:

- *Kontu-hartzaitzak egitea Udalean kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola, tokiko aurrekontu-esparrua betez, bai eta erakunde autonomoetako eraginkortasunaren kontrola ere.*

- *Aldez aurretiko fiskalizazio osoa geroztik egitea gastuetan, bai eta diru-sarreraren kontabilitateko arrazoi-hartzearen ondorengo egiaztatze-jarduketak ere, tokiko aurrekontu-esparruan aurreikusitako baldintzetan.*

- *Osoko Bilkurak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatzea behar diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen alde aurretiko kontu-hartzaitza egiterakoan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 248.2 artikuluan ezarri bezala.*

IV.5.4. Udaleko langile-gastuak

Langile-gastuak 81,57 milioi eurokoak izan ziren 2017an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren gutzitza ehuneko 41 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 99 da.

2016ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako betebeharrak, osotara, ehuneko sei handitu ziren, honako xehetasun hauen arabera:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2016	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aldea	2017/2016 aldea (%)
Hautetsien lansariak	936.155	949.453	13.298	1
Behin-behineko langileen ordainsariak	1.725.620	1.825.174	99.554	6
Funtzionarioen ordainsariak	40.148.547	39.714.966	-433.581	-1
Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	677.645	835.101	157.456	23
Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	2.369.509	5.924.568	3.555.059	150
Gizarte Segurantza	9.509.506	10.477.280	967.774	10
Pentsioak	20.723.427	21.109.629	386.202	2
Bestelako gizarte gastuak.	761.683	732.896	-28.787	-4
Langileria-gastuak, guztira	76.852.092	81.569.067	4.716.975	6

Aldi baterako langileen ordainsarien arloan izandako igoera nabarmentzen da, ehuneko 150ekoa; horren arrazoi nagusia da langileak subrogatu izana ELZren kudeaketarako, txosteneko IV.5.2 apartuan aipatu bezala. Langile finkoen partidaren ehuneko 23ko aldea ELZn subrogatutako langileen gastuaren zati baten aurrekontu-egozpen okerrari zor zaio.

Honako hauek dira plantillako lanpostuak eta aurreko ekitaldiko lanpostuekiko dagoen aldea:

Sailkapena	2016	2017	Diferentzia	Aldea (%)
Behin-behineko langileak	39	41	2	5
Langile funtzionarioak	1.346	1.347	1	0
Lan araubidea	44	232	188	427
Guztira	1.429	1.620	191	13

Plantilla organikoko lanpostuak 1.620 dira: 2016an baino 191 lanpostu gehiago.

Honako hau da lanpostuen egoeraren araberako sailkapena:

	2017
Plantillako langileak	1.620
Langile finkoekin betetako lanpostuak	942
Lanpostu hutsak	678
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	41,85
Betetako lanpostu hutsak	
a) ELZn subrogatutako langileak	194
b) Administrazio-kontratua duten langileak	259
Betetako lanpostu hutsak, guztira	453
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	66,81
Bete gabeko lanpostu hutsak	225
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	33,18

2017an, lanpostu guztien ehuneko 42 hutsik daude; horietatik, ehuneko 67 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 33k, bete gabe jarraitzen dute.

Hurrengo taulan erakusten dugu plantillaren banaketa, udal alorren arabera:

Udalaren alorra	Lanpostu kopurua	Guztizkoaren gainean (%)
Herritarren Segurtasuna eta Elkarbizitza	498	31
Gizarte ekintza	373	23
Kultura eta Hezkuntza	169	10
Hiri Bizigarria eta Etxebizitza. Hiri Kontserbazioa eta Proiektuak	165	10
Hiri Ekologia eta Mugikortasun Jasangarria	94	6
Tokiko Ekonomia Jasangarria. Ogasuna, Gizarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa	81	5
Tokiko Ekonomia Jasangarria eta Giza Baliabideak	63	4
Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika	62	4
Hiri Bizigarria eta Etxebizitza. Hirigintza, Etxebizitza eta Zaharberritzea	45	3
Komunitatearen Garapena	34	2
Alkatetza	20	1
Herritarren Partaidetza eta Gizarte Ahalduntzea	10	1
Berdintasuna	6	0
Guztira	1.620	100

Egin den azterketatik honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Udalak 2017ko martxoan onetsi zuen 2017ko plantilla organikoa. Plantilla horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zen, zeren eta hasierako erakusketa publikoan ez baitziren sartu ELZn subrogatutako langileak. Nafarroako Administrazio Auzitegiak prozeduraren deuseztasuna deklaratu zuen; hori dela eta, 2018an plantillaren onespenean eta erakusketa publikoko prozesua errepikatu zen, lanpostu guztiak jasota. Behin alegazioen izapidea amaituta, behin betiko onetsi eta NAO n argitaratu zen 2018ko apirilean.

- Guztira plantillaren bost aldaketa onetsi dira; horietatik bat bakarrik argitaratu da NAO n.

- 2017ko azaroan, lan-eskaintza publikoa argitaratu zen, guztira Iruñeko Udaleko 39 lanposturako (udaltzainen 21 lanpostu, gizarte langileen 11 lanpostu, eta gainerako lanpostuak beste zenbait alorretan). Giza Baliabideen Alorrean dokumentu bat badago, zeinean balorazio bat egiten baita lanpostuen estaldura-aurreikuspenei buruz, araudiak⁴ ahalbidetzen duen plantillen egonkortze-agertoki desberdinetan, 2017-2019 aldirako; honako hauek dira agertoki horiek:

a) Ehuneko 100erainoko berrezartze-tasa, tokiko polizia eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen zuzeneko laguntza bezalako sektoreetan, besteak beste.

b) Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarria, zeinak hartuko baititu aurrekontuzukidura izan eta gutxienez ere 2016ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan aldi baterako eta etenik gabe beteta egon diren lanpostuen ehuneko 90 bitarte.

c) Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarria, hain zuzen ere Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako moduan, aurrekontua duten aldi baterako lanpostuei dagokienez, betiere lanpostu horiek 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik etenik gabe beteta egon baldin badira.

⁴ 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen 19. artikulua.

Berrezartze-tasaren eta aldi baterako egonkortze-tasa gehigarrien arabera, Udalak honako hau hartu du kontuan:

2016an zerbitzuak emateari utzi zioten langile finkoak			
Sektoreak	Kopurua	Berrezartze-tasa	Eskaini beharreko lanpostuak, guztira
Udaltzaingoa	9	% 100	9
Gizarte ekintza	2	% 100	2
Gainerako sektoreak	10	% 50	5
Guztira	21		16
2016ko abenduaren 31 baino lehenagoko 3 urteetan aldi baterako eta etenik gabe betetako lanpostuak			
	Kopurua	Egonkortze-tasa	Eskaini beharreko lanpostuak, guztira
Guztira	37	% 90	33
2005eko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako eta etenik gabe betetako lanpostuak			
	Kopurua	Egonkortze-tasa	Eskaini beharreko lanpostuak, guztira
Guztira	59	% 100	59
Guztira			108

Hau da, 2017an, eskain daitezkeen berrezartze-tasaren eta aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarrien ondoriozko lanpostu-kopuru handiena 108 lanposturena da. 2017ko lan-eskaintza publikoak 39 lanpostu jaso ditu, barne sustapen bidez hornituko diren zazpi lanpostu barne (horiek ez dira kontuan hartzen berraztertze-tasaren ondoretarako). Aipatutako lan-eskaintza publikotik 25 lanposturen deialdia egin da.

Horrenbestez, Udalak langile finkoak barneratzeko eta plantillako behin-behinekotasuna gutxitzeko tarte handiagoa du, haren egonkortasuna segurtatze aldera.

- 2017ko irailean, honako hau argitaratu zen NAO: "Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2017-2019 urteetarako akordioa". Funtzionario publiko diren langileen enplegu-baldintzei buruzko akordioaren arloan, aplikatzekoa da Langileen Estatutuaren 84. artikuluan xedatutakoa. Akordio horiek soilik egin daitezke kasuan kasuko Administrazio Publikoaren eskumeneko arloei buruz.

Aipatutako akordioa aztertuta, ikusten da ordainsari-kontzeptu zein -osagarriak eta kalte-ordainen kontzeptuak jasotzen dituela, bai eta ordaindutako lizentziak emateko kasuen eta oporretarako eskubideen zabaltzea ere, Langileen Estatutuan jasotako gaitzen dutenak (25/1993 Legegintzako Errege Dekretua). Udalak ezin du lege-araubide hori aldatu, ez eta aplikatzekoa den araudian jasotakotik bereizten den araubide bat itundu ere.

- Lanbide-kategoria aipagarrienei dagozkien 814 nominaren lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugu plantilla organikoan ezarritako osagarriak egokiak direla. Guztira, C eta D mailetako 132 langile detektatu dira, zeinei urrian lanpostu-osagarria aldatu baitzitzaien "Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2017-2019 urteetarako akordioa" izeneko agirian hartutako konpromisoei jarraituz. Kasuko osagarriak ez dira aldatu, ez eta argitaratu ere, plantilla organikoan, baina 2018ko plantilla organiko berriak esleipen berria jasotzen du.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere lanpostu bat badago, plantilla organikoan ageri denetik gorago dagoen lanpostu-osagarri bat jasotzeko baimenduta dagoena, baina haren gaurkotzerik ez da plantillan jaso.

- Nominaren barne kontrola.

Ganbera honen aurreko txostenetan errepikatu den bezala, kontu-hartzaileak ez du nomina fiskalizatzen.

- Klase pasiboen araubideari lotutako langileen finantzaketa.

Ganberak 2015eko ekitaldiari buruz egindako txostenean, aipatzen zen Udalak jasotako diru-laguntzan gehiegizko finantzaketa bat zegoela, zeren eta ez baitzen kontuan hartzen Nafarroako Gobernuari atxikitako suhiltzaileen kidegoko langileengatik Udalak jasotzen duen diru-sarreraren zenbatekoa.

2017ko ekitaldiko finantzaketaren justifikazioak 2016ko ekitaldian egin zen planteamenduari eusten dio:

a) Alde batetik, Udalak deskontatzekoa den diru-sarrera gisa jasotzen du 696.776 euroko kopuru bat. Udalak kopuru hori jasotzen du Gobernuari atxikitzea aplikatzearen ondorioz, lehen aipatu bezala. Horrek esan nahi zuen 2017an, aurreko ekitaldian bezala, Ganbera honen txostenean agerian jarritako finantzaketaren gehiegizko kopurua, Iruñeko Udalak jasotzen duen diru-laguntzari dagokiona, zuzenduko zela.

b) Bestetik, aurreko eragin finantzarioa konpentsatzeko, montepioaren urteko kostuaren balorazio bat egiten da, horretarako kontuan hartuz pentsioengatiko prestazioak eta pentsioen kudeaketaren ondoriozko zuzeneko eta zeharkako kostuen zenbatespenetik heldutako igoera. Horri dagokionez, eta aurreko txostenetako konklusioak berretsiz, uste dugu Udaleko klase pasiboen urteko kostu garbia lortzen dela pentsioengatiko prestazioen gastu soila kontuan hartuz.

Egiaztatu dugu Nafarroako Gobernuak 6.874.964 euro likidatu dituela. Magnitude hori kalkulatzeko, alde bakarretik kalkulatu da udal suhiltzaileengatiko arestian aipatutako ekarpena, Foru Komunitateko Administrazioan zerbitzu berezietan egoteari dagokiona.

Halaber, Nafarroako Gobernuak banaketa-kontutik 2.353.396 euroko zenbateko bat kentzen du: kopuru hori udal montepioaren finantzaketarengatik 2013ko ekitalditik jasotako gehiegizko zenbatekoen erregularizazioari dagokio.

Udala Foru Administrazioari errekerimendua egiteko eskubideaz baliatu da, eta une hauetan administrazioarekiko auzien bidean errekurtsioa aurkeztuta dago horren aurka. Horren berri, oroitidazkiko kontingentziei buruzko apartatuan ematen da.

Gure gomendioak:

- *Plantillaren aldaketak izapidetzea toki esparruan aurreikusita dagoen prozedurari jarraituz.*
- *Hurrengo lan-eskaintza publikoetan, Udaleko etxeko laguntza zerbitzuko lanpostuak sartzea, bai eta udal eskoletako sukalde- eta garbiketa-zerbitzuei dagozkienak ere, zeinak plantilletan subrogatu baitira aldi baterako egoera berezi bati erantzuten diotelako. Halaber, araudiak baimendutako lanpostuak eskaintzea, aldi baterako enplegua egonkortze aldera.*
- *“Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2017-2019 urteetarako akordioa” berrikustea, eta itunak Udalaren eskumeneoak diren gaietara mugatzea.*

IV.5.5. Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

2017an Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 66,28 milioi eurokoak izan ziren. 2017an aitortutako betebeharren guttizkoaren ehuneko 34 egiten dute. Betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95ekoa izan da, eta ehuneko 0,29 egin zuten gora 2016arekin alderatuta.

Ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastuak, milioi batetik gorakoak, honakoak izan ziren 2017an:

Kontzeptua	Betebeharrak 2016	Betebeharrak 2017	Aldea	% Aldea
Bide publikoa garbitzea	7.996.888	8.294.960	298.072	4
Mugikortasuna, trafikoa eta MUGAren kudeaketarako kontratua	7.482.891	7.645.691	162.800	2
Berdeguneak, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	4.015.557	4.009.525	-6.032	0
Kultur azpiegiturak. Jardueren kudeaketa	2.928.177	2.956.689	28.512	1
Informatika eta zerbitzu informatikoen mandatu berria	2.977.125	2.794.893	-182.232	-6
Argiteria publikoaren kontsumoa	2.776.161	2.425.778	-350.383	-13
Ikastetxe publikoak, garbiketa zerbitzuak	2.044.302	2.059.764	15.462	1
Pertsonen arreta ematea, jardueren kudeaketa*	2.963.256	1.602.862	1.360.394	-46
Argiteria publikoaren kontratua	1.449.445	1.447.944	-1.501	0
Kulturaren zabalkundea	1.214.008	1.267.969	53.961	4
Kirol instalazioak, jardueren kudeaketa	1.325.487	1.198.143	-127.344	-10
Bide publikoa, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	1.135.337	1.120.061	-15.276	-1
Udaltzaingoa, ibilgailuak erretiratzeko kontratua	1.169.721	1.031.446	-138.275	-12

* Partida horretan ageri den aldea etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa-aldaketari dagokio, zeina txostena analizatu baita

Gastuen honako partiden lagin bat fiskalizatu da:

Aurrekontuko partidak	2017ko betebeharrak
Bide publikoa garbitzea	8.294.960
Berdeguneak, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	4.009.525
Kultur azpiegiturak. Jardueren kudeaketa	2.956.689

Gure azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, fiskalizatutako laginean, gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta (aldez aurreko kontu-hartzaitza mugatua), zuzen kontabilizatuta eta 30 egunetik beherako epe batean ordainduta daudela. Gainera, prozedurak ezarri eta aplikatu dira kontrolatze aldera fiskalizatutako zerbitzuak baldintza-orrietan ezarritako estipulazioen arabera eman eta justifikatzen direla.

Dena den, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Berdeguneei eta kultur jardueren kudeaketari buruzko kontratuak 2017ko ekitaldi osoan fakturatu dira isilbidezko luzapenaren figura erabiliz; figura hori, ordea, ez dago jasota kontratazio publikoaren esparruan, eta aukera eman dio Udalari aurreko adjudikazio-hartzaileari zerbitzua ematen jarrai zezala eskatzeko, behin kontratuaren legezko indarraldia amaituta, zerbitzua berriz ere adjudikatu bitartean.

- Garbiketa-kontratua 2016an lizitatu zen, eta hiru lote sortu ziren horretarako. Loteetako bat eman gabe geratu zen eta beste bat kautelaz eten zuen Kontratuen Administrazio Auzitegiak; gero, ezetsi egin zen erreklamazioa. 2017an behin betiko adjudikazioa egin arte, zerbitzua eman da birbideratze tazituen bidezko luzapenaren figura erabiliz.

- Kontratua amaituta ematen jarraitzen diren zerbitzuengatik ordainketen izapidetzeak suposatuko luke aberaste bidegabea edo arrazoirik gabeko aberastea debekatzen duen printzipiora jotzea; horrenbestez, jurisprudentziaren doktrinak ezarri duen bezala, Administrazio Publikoa hiruga-

rrenak egindako lanengatiko kalte-ordaina ematera behartuta dago. Printzipio horren aplikazioak berekin ekarri beharko luke berariazko espediente bat izapidetzea, eta hartan oinarrituz administrazio publikoek beren betebeharra eta ordainketa aitortzea; halako espedienterik, ordea, ez da egin fakturatutako zerbitzuetan.

2017an egindako adjudikazio hauek berrikusi ditugu, bai eta urte horretan haiei dagokien gastu-exekuzioa ere:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbakia Lizitatuak	Zenbatekoa Lizitazioa, BEZik gabe	Prezioa Adjudikazioa, BEZik gabe	Behera- pena
Etterik gabeko pertsoneri arreta emateko udal zerbitzuaren kudeaketa	Irekia, Europar publikizitatea eginda	4	1.244.973	1.218.827	-2
Lankidetzarako plan zuzendaria	Irekia, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	3	25.000	24.000	-4
Txantreako eta Arrosadiako auzo-unitateetan oinarritzko osasun laguntzako eredu berriaren jarraipena eta ebaluazioa egitea	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	1	18.000	18.000	0
Etxeko laguntza zerbitzurako elikadura zerbitzua	Irekia, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	3	274.169	192.347	-29,84
Sanferminetako programa ofizialeko ekitaldietarako soinua eta argiteria 1. lotea				19.500	
Sanferminetako programa ofizialeko ekitaldietarako soinua eta argiteria 2. lotea	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	5	39.008	12.300	-12,07
Sanferminetako programa ofizialeko ekitaldietarako soinua eta argiteria 3. lotea				2.500	
Sanferminetako babesletza	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	1	16.529	16.529	-
"Bizikleta eskolan" programa, 2017-2018 ikasturtea	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	1	43.400	43.152	-0,57
Iturramako ikasleentzako bideen bi proiekturen ibilgarritasunaren eta diseinuaren azterketa egitea	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	1	30.000	21.100	-29,67
Iruñeko ziklabilitatearen 1. fasearen erredakzioa, 2017-2022	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	3	40.000	28.100	-30
Epai-barrutiko epaitegiarako prokuradore-zerbitzuak 2018ko ekitaldia	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	6	69.421	69.421	-
"Iruñeko Udalaren irudi, publikitate, sustapen, iragarki edo hedapen-ekintzetarako materialak eta euskarriak sormenez diseinatzea" izeneko zerbitzuak emanen dituzten enpresen eta profesionalen hautaketarako esparru-akordioa.	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	24	400.000		
Ibilgailuak eremu publikotik kentzeko zerbitzua	Irekia, Europar publikizitatea eginda	2	966.942	822.361	-14,95

Oro har, kontratuen lizitazioak eta haien adjudikazioak, bai eta kontratuen exekuzioak ere, kontratuei buruzko legediari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzailetak baimenduta (aurreko kontu-hartzailetak mugatuta), justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude; kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko epea gainditu gabe ordaindu dira, oro har; halere, espedienteen kudeaketa-dela eta, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Bi espedientetan kontratazio-organoak adjudikaziorako aurreikusitako gehieneko epea geroz geroz da.
- Etxeko laguntza zerbitzurako elikadura-kontratuan, birbideratze tazituen bidezko ondoz ondoko luzapen batzuk egin dira, haien kontratu-kudeaketarako plangintzarik ez dagoelako, zeren eta bai 2016an, bai 2017an aurreko kontratua amaitzeko datak lizitazio berri batekin batera suertatu baitira. 2017ko ekitaldiko lizitazioa eten egin zen, eta geroztik deuseztat deklaratu zuen Kontratu Administrazio Auzitegiak 2017ko ekainean.

Azken batean, kontratuen esparruan aurreikusitako adjudikazio-prozeduren arabera lizitatzen dira kontratuak; halere, ikusten da kontratazioaren plangintza desegokia dela, eta aurreko zerbitzua adjudikazio-hartzailerekin jarraituzera justifikaziorik gabe jotzen dela, indarraldia amaituta zeukan kontratu baten luzapenak ginez.

Gure gomendioak:

- *Kontratuen indarraldia dela-eta kontratuei buruzko araudian ezarritako gehienekoa errespetatzea, eta kontratuen plangintza egokia ezartzea, egungo araudi-esparruan aurreikusi gabeko luzapenak saihesteko.*

- *Betearazpen-oinarrietan izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, kontratu-euskarririk gabeko zerbitzuak ordaindu behar diren kasuetan, organo eskudunak onets ditzan.*

- *Adjudikazioak araudian ezarritako epean egitea.*

IV.5.6. Inbertsioak

Udalak 2017an egindako inbertsioek 12,38 milioi euro egin zuten. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 6,3 da. Betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 68koa izan zen, eta gastua 2016koa baino ehuneko 10 txikiagoa izan zen.

Inbertsioen betearazpen-maila txikia nagusiki zor zaio Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen onespeneraren pean egoteari; izan ere, lege horrek 2017rako luzatu zuen ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioetarako superabitaren zertarakoa.

Horrenbestez, lizitazio- eta adjudikazio-prozesuak, 2017ko bigarren seihilekoan, berekin ekarri du haren betearazpena 2018ko aurrekontura aldatzea.

Obra- eta hornidura-kontratuen honako adjudikazio hauek fiskalizatu dira:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatzaile	Lizitazio prezioa (BEZik gabe)	Adjudikazio-prezioa (BEZik gabe)	Adjudikazioaren beharapena (%)
Erreformatarako hornitzaileen hautaketarako esparru-akordioa	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	23	206.612		
Autokarabanetarako zerbitzu eremua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	4	141.836	112.000	-21
Lehen zabalguneko mugikortasun-arloko jarduketak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	5	152.428	121.942	-20
Hiri-igogailua jartzea	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	6	798.920	675.570	-15
Karmen kaleko Jantoki soziala eta eguneko zentroa	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	5	186.116	155.019	-17
Garbiketarako makinaria hornitzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	3	673.803	660.3450	-2

Oro har, kontratuen lizitazioak eta haien adjudikazioak, bai eta kontratuen exekuzioak ere, kontratuei buruzko legediari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak baimenduta (aurreko kontu-hartzaitza mugatua), justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude; gainera, kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko epea gainditu gabe ordaindu dira.

Egindako azterketatik, halere honako gabezi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Erreformatarako hornitzaileak hautatzeko esparru-akordioaren adjudikazioak 72 egunetan gainditu du kontratuen esparruan aurreikusita dagoen gehieneko epea, hilabetekoa.

- Lehen zabalguneko mugikortasun-jarduketan kontratuan, zuinketa-akta eta obraren hasiera kontratua egin aurrekoa da; akta hori geroztik onetsi beharrekoa da.

- Mendillorriko hiri-igogailuaren instalazioa jaso zen azken bi ziurtagiriak, obraren amaierako txostena eta gizarte-enpleguko zentroaren ziurtagiria jaso gabe zeudela. Gure txostena egiteko garaian, ziurtagiri bat falta da oraindik ere, bai eta dokumentazioaren gainerakoa ere.

- Karmen kaleko jantoki sozialari eta eguneko zentroari dagokien kontratuan, berriz, pleguei buruzko txosten juridikoa 2017ko abenduan eman zen, lizitazioa urrian egin bazen ere. Halaber, kontratua kontratuei buruzko araudian ezarritako epearen ondoren formalizatu da.

Gomendatzen dugu adjudikaziorako gehieneko epea eta kontratuaren esparruan eskatutako formaltasunak bete daitezen.

IV.5.7. Transferentzia-gastuak

2017an, Udalak 23,85 milioi euro egiten duten transferentziak eta diru-laguntzak eman zituen. Honakoak izan ziren onuradunak:

	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharrak	Aldea (%) 2017/2016	Aitortutako betebeharrak	Aldea (%) 2017/2016
Erakunde autonomoak	9.908.371	6	680.922	-12
Udal sozietateak	841.283	-67	327.000	-
Foru Komunitatea	362.776	3		
Mankomunitatea	2.252.018	4		
Enpresa pribatuak	73.417	1		
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	7.001.743	8	1.302.618	36
Kanpoko aldeetan	923.125	-14	180.000	125
Guztira	21.362.733	-3	2.490.540	38

Udal sozietateei egindako transferentzietan betetzea txikiagoa izatearen arrazoia da etxeko laguntza zerbitzuan izan den kudeaketa-aldaketa, halako moduz non lehenago Asimec SAK zerbitzua finantzatzeko jasotzen zituen transferentzien zati bat orain 1. kapitulura aldatu den, langileak Udalaren plantilletan subrogatu ondoren.

Transferentziek eta diru-laguntza arruntek 21,36 milioi euro egin zuten. 2017ko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 11 dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 97 da.

Aurreko urtearen aldean, ehuneko hiru jaitsi ziren, nagusiki etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketan egindako aldaketaren ondorioz, aurrez aipatu bezala.

Transferentziak eta kapitaleko diru-laguntzak 2,49 milioi eurokoak izan ziren; horrek Udalaren 2017ko gastu guztien ehuneko bat egiten du. 2016an aitortutakoak baino ehuneko 38 handiagoak izan ziren, batez ere familiei eta erakundeei etxebizitzak zaharberitzeko emandako diru-laguntzek ehuneko 36 egin zutelako gora, bai eta 2017an udal sozietateei egindako transferentziek ere (2016an ez zen halakorik izan).

Transferentzia eta diru-laguntza arrunten eta kapitalekoen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Transferentzia arruntak	Onuradunen kopurua	Aitortutako betebeharrak
Norgehiagoka araubidea		
Irabazi asmorik gabeko entitateentzako laguntzen deialdia, 2017an eus-kara sustatzeko proiektuak egiteko	15	78.704
Turismoaren sektoreko elkarreentzako laguntzen deialdia, 2016ko urriaren 1etik 2017ko irailaren 30era turismoa sustatzeko jarduketak egin ditzaten.	6	52.300
Banakako ebaluazioaren araubidea		
Mugikortasuna dela eta desgaitasun larriak dituzten pertsonen zuzendutako garraiobide alternatiboa den bono-taxiaren erabilera sustatzera bideratutako laguntzen deialdia.	358*	190.000
Udal taldeen finantzaketa	6	134.700

*Laginean berrikusitako hiruhilekoari buruzko datuak

Kapital-transferentziak	Onuradunen kopurua	Aitortutako betebeharrak
Iruñeko hiriko eraikinen ebaluazio-txostenak egiteko ordainsari teknikoak diruz laguntzeko laguntzen deialdia	823	416.448
Alde zaharreko eraikinak zaharberritzeko aurreproiektuak egiteko ordainsari teknikoak diruz laguntzeko laguntzen deialdia.	6	18.934
PCH	1	327.000
Europar Batasuna	6	135.000

Exekuzio-oinarrien 8. eranskinean aurreikusitako diru-laguntza izendunak	Onuradunen kopurua	Aitortutako betebeharrak
Iruñeko Abokatuen Elkargoa / Bitartekaritza Hipotekariorako Bulegoa	1	25.500
Nafarroako Unibertsitatea / Latinoamerikako Arkitekturaren Bi Urtekoa	1	24.000
Soto Lezkairuko jabekideak / Eraikinak zaharberritzeko laguntzak	1	52.263

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta diru-laguntza guztiak onetsita, fiskalizatuta eta egoki kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera.

Aurrekoa gorabehera, egindako fiskalizaziotik honako gai hauek nabarmendu behar ditugu:

- Turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen deialdian, onuradun guztiak ez dituzte aipatu diru-sarretarako zenbatetsi dituzten zenbatekoak. Ikusten da ezen, batzuetan, finantzatutako kanpainetako publizitate-liburuxketan, entitate babesleen publizitate-aipamen batzuk ageri direla, baina babesletza horiei lotutako diru-sarrerak ageri gabe.

- Iruñeko hiriko eraikinen ebaluazio-txostenak idazteko ordainsarietako laguntzen deialdian, guztira 11.607 euro egiten duten laguntzak eman dira gutxienez ere 50 urteko antzintasuna edukitzeko baldintza betetzen ez zuten eraikinei⁵; izan ere, oinarri arauemaileetan ageri da baldintza hori. Era berean, ez da obren exekuzioari buruzko jarraipen egokirik egiten aurreikusitako epeetan, ebaluazio txostenaren arabera.

- Egokiagoa iruditzen zaigu Abokatuen Elkargoarekin egindako lankidetzaren hitzarmenari –haren bidez bitartekaritza hipotekariorako bulegoaren zerbitzuarentzako diru-laguntza izenduna bideratzen da–, daukan xedea dela eta, zerbitzu-kontratuaren kalifikazio juridikoa ematea, 6/1990 Foru Legean toki sektorerako ezarritako kontratazioko berezitasunei jarraituz.

- Laguntzetarako hiru deialdi badaude, zeinen azken xedea baita eraikinak zaharberritzea; horietan, izan ere, BEZa gastu hautagarri gisa tratatzea dela-eta homogeneotasunik ez dago, eta bi deialdietan finantzatu beharreko gastua da.

- Pamplona Centro Histórico SA sozietate publikoari kapital-transferentzia batzuk aurrez ordaindu zaizkio, 2018ko ekitaldirako egitea aurreikusita zeuden zaharberritze-jarduketa batzuk finantzatzeko, Administrazio Kontseiluaren aktan ageri den moduan. Gure txostena egiteko datan, ez da inongo jarduketarik hasi, eta aurreikusita dago aipatutako inbertsioak 2019ko ekitaldian zehar egitea.

- Lau laguntza-deialdiren kasuan, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean ez da argitaratu haiek eman direla, ez eta lankidetzaren hitzarmen baten sinadura ere. Halaber, hiru laguntzaren kasuan, NAOen ez da argitaratu haiek eman egin direla, deialdiek hori eskatzen duten arren.

- Udal taldeentzako zuzkidura ekonomikoak Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legearen 73.3 artikuluan araututa daude; artikulua horretan, izan ere, honako hau ezartzen da: *“Korporazioko Osoko Bilkurak diru-zuzkidura bat izendatu dezake talde politikoentzat korporazioko urteko aurrekontuen kontura; osagai bat finkoa izango da, talde guztiarentzat berdina, eta beste osagaia aldakorra, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko aurrekontu orokorren legeetan orokorrean ezar daitezkeen mugen barruan; eta ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduten ezelango langileen lansariak ordaintzeko, ez eta ondare moduan aktibo finkoak eratzeke balio dezaketen ondasunak eskuratzeko ere”*. Horretarako, artikulua horrek udal taldeei

⁵ Bizilagunen 21 komunitateri dagokie

eskatzen die *"kontabilitate berariazko bat eraman beharko dutela, eta hura Korporazioko Osoko Bilkuraren esku jarri beharko dutela, horrek eskatzen duen guztietan"*.

Udalari eta udal taldeei baldintza horien betetzea egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu zaie, eta honako hau da emaitza:

a) Osoko Bilkurak 2015ean onetsi zuen egungo sei talde politikoei zenbateko batzuk esleitzea, tokiko esparruan ezarritakoari jarraituz. Hiruhileko izaera duten transferentzien bitartez ordaindu dira.

b) Transferentziak titularitatea eta IFZ alderdi politiko baten izenean dauzkaten banku-kontuetan sartu dira, talde baten kasuan izan ezik; izan ere, talde horrek banku-kontu berariazko eta desberdin bat aurkeztu du, kide deneko koalizioarenaz bestekoa, beste IFZ batekin. Hala eta guztiz ere, 2018ko ekitaldian, bi taldek aurkeztutako dokumentazioan IFZ bereki bat duen banku-kontua ageri da, alderdi politikotik berezia.

c) Osoko Bilkurak ez die udal taldeei eskatu berariazko kontabilitatea aurkez dezaten. Kontu-hartzaitzak organoaren eta partidaren egokitasuna beste ezer ez du egiaztatu. Aldez aurreko fiskalizazio mugatuak ezartzen du, halaber, Osoko Bilkurak zehazten dituen beste alderdi batzuk egiaztatu behar direla, kudeaketa prozesuan duten eragina dela-eta.

d) Taldeek Ganbera honi aurkeztutako dokumentaziotik⁶ bereizitako berariazko kontabilitate bat dutenik egiaztatu ez badute ere, identifika daitezke, alde batetik, kide diren alderdi politikoei transferitzen zaizkion zuzkidura ekonomikoaren ekarpenak eta, bestetik, taldeak propioztat hartu dituen gastuen zerrenda bat, bai eta erabili gabeko gerakinak egotea ere.

Egindako azterketari buruz, honako hauek hartu behar ditugu kontuan:

a) Udal talde politikoenetako diru-esleipenak izaera finalista du, eta haren xede naturala da taldearen funtzionamendua erraztea bere udal jarduera korporatiboan; eta, funts publikoak diren aldetik, justifikatu beharrekoak dira.

b) Bai zuzkiduraren esleipena, bai kontabilitate-errekerimendua Osoko Bilkuraren aukerameneoak direla oinarri hartuta, behin zenbateko horiek esleitzea erabaki ondoren, komenigarria izanen litzateke berariazko kontabilitatea eskatzea, gutxienez ere haien xedea dela-eta tokiko esparruan eskatzen diren mugak kontrolatzeko.

c) Osoko Bilkurak bere aukeramenean duen berrikuspen hori osatu egin beharko litzateke diru-laguntzen aplikazioa dela-eta egoki den egiaztatzearekin, zeina Kontu-hartzaitzari baitagokio.

Gure gomendioak:

- *Prozedura egokiak ezartzea, diruz lagundutako jardueri lotuta dauden kanpoko finantzaketak badauden egiaztatzea bideratuko dutenak.*

- *BEZari gastu hautagarri gisa eman beharreko tratamendua homogeneizatzea, kontuan hartuta arlo fiskalean kenkaria izan daitekeela, bere finantzaketan bikoiztasuna saiheste aldera.*

- *Laguntzen emate guztiak argitaratzea Diru-laguntzen Datu Base Nazionallean, bai eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere, oinarri arautzaileetan hala ezartzen denean.*

- *Udal sozietateei finantzaketa aurreratua eman dakien saihestea, exekuzioaren aurreko ekitaldietan kapitaleko inbertsioak egiteko.*

- *Diru-laguntzak ordaintzeko izapideak hastea eman diren baina emate-baldintzak bete ez dituzten diru-laguntzen kasuan.*

- *Udalak hura aurkeztu ez duten udal taldeei eskatzea IFZ propio bat dutela egiaztatu dezatela, beren banku-kontuarekin, kide diren alderdi edo koalizio politikotik berezia eta independentea, bai eta berariazko kontabilitatea edukitzea eta eskatzea ere, diru-sarreratik eta gastuetatik berezia, gutxienez ere egiaztatu ahal izateko bete egiten direla tokiko esparruan ezarritako betekizun eta mugak.*

⁶ Kide diren alderdi politikoen banku-laburpenak, erantzukizunpeko adierazpena eta kontabilitateko egoera-orriak.

• *Erregelamendu bidez garatzea justifikazio-araubidea, bertan zehaztuta bai zuzkidura ekonomikoen xedea, bai eta formazko eta prozedurazko gainerako betekizunak ere, funtsak justifikatu eta fiskalizatu ahal daitezen.*

IV.5.8. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2017an aitortutako eskubideek 88,08 milioi euro egin zuten. Kopuru hori Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 46 da. Honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Betetakoa (%)	2017/16 aldea (%)
	2016	2017		
Zuzeneko zergak	55.770.898	51.908.402	100	-7
Zeharkako zergak	8.046.537	6.076.237	104	-24
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	28.680.597	30.098.878	114	5

Zergak

Zergak udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 30 dute, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean ehunekoa	2017/16 aldea (%)
Zuzeneko zergak			
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	16.467	0,01	-33
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	29.263.543	15,04	4
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	8.893.717	4,57	1
Zirkulazio zerga	9.556.339	4,91	1
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	3.380.984	1,74	-60
Bingo-sarien gaineko zerga	797.352	0,41	4
Zeharkako zergak			
EIOZa	6.076.237	3,12	-24

Zenbateko handieneko eskubide aitortuak hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioari dagozkio. 29,26 milioi euro dira, eta 2016arekin alderatuta ehuneko lauko igoera gertatu da. Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren tasa 2016an 0,3801 izatetik 2017an 0,3826 izatera igo da.

Garrantziaren araberako hurrenkeran, ondotik honako hauek datoz: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 9,56 milioi; jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 8,89 milioi, eta lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga, 3,38 milioi.

Bereziki aipagarriak dira hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ehuneko 60 jaitsi dela 2016koarekin alderatuta (5,16 milioi euro gutxiago), Konstituzio Auzitegiaren irizpide aldaketaren ondorioz, eta eraikin, instalazio eta obren gaineko zeharkako zerga ehuneko 24 jaitsi dela (1,97 milioi gutxiago), zeren eta 2017an 6,08 milioi likidatu baitira, 2016an zortzi milioi euro likidatu ziren bitartean.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,3826	0,10 - 0,50
Landa-lurraren kontribuzioa	0,8000	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32 eta 1,40 bitarte	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	18	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	10, gehienez
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	0,153	0,04-0,2

Iruñeko udalerrian, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legean jasotakoetatik zenbait inguruabar gertatzen dira, ponentzia berri bat onetsi ahal izateko; izan ere, azken berrikuspenetik hemezortzi urte iragan dira eta aldaketak gertatu dira luraren erabilera- eta aprobetxamendu-baldintzetan, Ganbera honek behin eta berriz gomendatu izan duen bezala.

Diru-sarrereren hurrengo partiden lagin bat hartu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak (%)	2017/2016 aldea (%)
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	29.263.543	97	4
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA	6.076.237	94	-24
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	3.380.984	98	-60

Halaber, Tributuak Ikuskatzeko Planaren arloko jarduketak eta emaitzak berrikusi dira, bai eta zenbait zergaren hobari eta salbuespenen ondorioz Nafarroako Gobernuarekin egindako konpen-tsazioen egoera ere.

Egindako lanean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatuaren arabera egin direla. Horri dagokionez honako hau adierazi behar dugu:

- 2016ko ekitaldian, balorazio ponentzia partzial bat onetsi zen, hura udal planaren zehaztape-nei egokitzeko. Azken hirigintza-garapenetan eraikitako 9.010 etxebizitzatan zuen eragina. Balio horiek 2017ko likidazioetan aplikatu dira. Oraindik ere ez da ez izapidetu ez onetsi ponentzia oro-kor bat, zeinak balioak gaurkotu eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean luraren kontribuziorako ezarritako zerga-tasa bakarra egokituko dituen.

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatu egin da, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko ekaineko epai baten ondorioz; horren bidez, izan ere, konstituzio-kontraktat eta deuseztat jo-tzen dira Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen artikulua batzuk, eta horren ondorioz deu-sezak dira balio-gehikuntzarik ez dagoen transmisioetan egindako likidazioak.

Araudiaren aldaketa horrek eragin du abenduaren 17ko 19/2017 Foru Legearen bidez toki oga-sunen esparrua aldatzea. Berritasuna da, funtsean, ez dela zergarik ordaindu behar subjektu pasi-boak balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen duen kasuetan. Halaber, hartan denbora-eremua arautzen da eta likidazio-dataren arabera eta likidazio hori irmoa izatearen ala ez izatearen ara-bera aplikatzekoak diren arau desberdinak ezartzen dira.

Konstituzio Auzitegiaren epaiak berekin ekarri zuen 2017ko ekainean likidazio ugari geraztea; zehazki, balio-gehikuntzarik ez egotea zekartenak. Lege berriak indarra hartzearekin, 2018an ha-ren arabera likidazioa egiten da. Likidatzeko gelditzen dira 2017ko uztailetik abendura doazen eragiketak, zeinak lege berrian araututa dauden arren, etenda geratzen baitira, zuhurtasun arra-zoiengatik eta hartzeko dauden erabaki judizialek zalantza eragiten dutelako.

2018ko martxoan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren bidez, deuseztat dekla-ratu ziren 2017ko uztailetik abendura egindako likidazio guztiak, araudi berriaren aplikazioaren ondoriozkoak, balio-gehikuntza egon nahiz ez egon. Arrazoa da arauak jasotzen zergaren pean ez-egotea baldin eta balio-gehikuntzarik egon ez bada, baina aldi beran xedatzen du ezen gehi-

kuntza hori baldin badago 2017an zehar aplikatutako koefiziente eta kargen arabera likidatu beharko dela zerga; deuseztat eta konstituzio-kontrakotzat deklaraturako artikuluetan jasotako arabera. Gaur egun, Auzitegi Gorenak horri buruzko erabakia hartzearen zain gaude, horren arabera jarduteko 2017ko bigarren seihilekoaren likidazioetan.

- EIOZaren aldeak, berriz, zor zaizkio 2016an diru-zenbateko handiko obrei dagozkien bederatziz espediente egoteari. Gutxiago likidatu arren, 2016an baino ehuneko 13,5 ordainagiri gehiago egon dira.

- 2017an egindako ikuskapen jarduerak 0,95 milioi euroko diru-sarrerak ekarri dizkiote Udalari; horietatik, ehuneko 77 EIOZari dagozkio: aurreko ekitaldikoaren antzekoa da portzentajea hori

- Udalak kobratzeko dauden eskubide batzuk dauzka aitortuta, jarduera ekonomikoaren gaineko zergari dagozkionak, 2016ko eta 2017ko ekitaldien artean 0,8 milioi euro egiten dutenak. Zenbateko hori dagokie tokiko tributuen esparruan aurreikusitako hobari fiskalei, Foru Komunitateak konpentsatu behar dituenen. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, oro har, konpentsazio horiek bi urtetik hiru urtera bitarteko atzerapenarekin ari da ordaintzen.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasek, prezio publikoak eta beste diru sarrera batzuek udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 15 dute, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Diru-sarrera guztien gainean (%)	Aldea (%) 2017/16
Tasak	22.040.035	11,33	2
Salneurri publikoak.	955.428	0,49	6
Bestelako diru-sarrerak	7.103.415	3,65	16

Bestelako diru-sarren hurrengo partidaren lagin bat hartu dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aldea (%) 2017/16
Isunak eta zehapenak	4.846.959	19

Hartutako lagina aztertuta, ikusi da haren likidazioa eta diru-bilketa, oro har, aplikatzeko den araudiaren arabera egin direla; halere, zenbait inkoherentzia detektatu dira zorrak borondatezko aldiaren duen egoera eta aldi exekutiboan duen egoera alderatuta (espediente batzuetan premia-menduzko probidentzia izapidetu ondoren).

Halaber, honako hauek berrikusi dira:

- Iruñeko Udalak hartutako konpromisoa eta balizko itzulketa-espedienteen azterketaren gaineko egoera, Ganberak 2015eko larrialdi sozialeko laguntzei buruz egindako txostenari dagokionez.

- Udal tasetan ezarritako zenbatekoei eusten dieten kostuen azterlana.

Emitza hauek lortu ditugu:

- 2017ko maiatzean 2015eko larrialdi sozialeko laguntzei buruz egin genuen txostenean, agerian jarri zen gutxienez ere 91 laguntza badaudela, 33.737 euro egiten dutenak eta gastu bererako eman zirenak, bai eta Foru Komunitateko Administrazioaren eta Udalaren faktura bana ere, geroztik ordaindu ez direnak. Gure txostena egin den egunean, ez dago jasota horri buruzko inongo jarduketarik egin denik.

- Tasek zenbatekoaren euskarri den kostuen gaineko kalkulua 2000. ekitaldian ezarritako sisteman oinarrituta dago. Ganbera honek Udalaren 2007ko Kontu Orokorrari buruzko txostenean agerian jarri zituen haren metodologiaren ahulezia batzuk, hala erabilitako kalkulu sistemakoak, nola urteko gaurkotzea tasa eta prezio publikoen oinarrian dauden kostuen KPlan oinarrituta egitekoak, bai eta gaurkotu gabeko antolamendu egitura bat izatekoak ere. Gaur egun prozedura berekin jarraitzen da; horrek esan nahi du prezio publikoak edo tasak aldatzeko kostuen azterlan desegoki batean oinarritutako irizpideak erabiltzen jarraitzen dela.

Gure gomendioak:

- *Balorazio-ponentzia berri bat behin betiko onestea, katastro-balioak aldatuko dituen, lehendik daudenak aldera.*
- *Zorren kontabilitate-erregistroa berrikustea, behin premiamendu-probidentzia onetsi eta behar bezala jakinarazi ondoren.*
- *Tarifak finkatzea metodologia egokiago batez kalkulaturako kostua kontuan izanda, horren bidez haien estaldura-maila fidagarritasun handiagoz ezagutze aldera.*
- *Kostuen azterlana eta metodologia berrikustea.*
- *2015eko ekitaldiko larrialdi sozialeko laguntzen espedientetan behar diren jarduketak hastea.*

IV.5.9. Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 98,10 eta 0,3 milioi euro egin zuten hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 51 dira.

Aurreko urtearekiko alderaketa-datuek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2017/2016
	2016	2017	
Transferentzia arruntak	97.523.726	98.104.548	1
Kapital-transferentziak	2.183.604	294.145	-87

Ehuneko 87ko jaitsieraren arrazoia da Europar Batasunaren transferentzia-eskubide gutxiago aitortu direla 2016an baino.

2017an milioi bat eurotik gorako zenbatekoengatik jasotako transferentziak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	Aitortutako diru-sarrerak, 2017	Transferentzien bidezko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa	Aurrekontuko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa
Nafarroako Zerga Ogasuneko zergetako parte-hartzea	57.147.971	58	29
Hiriburutza agiria	24.155.895	25	12
Eskubide pasiboen finantzaketarako ekarpena	6.874.964	7	4
Nafarroako Gobernua: oinarritzko gizarte zerbitzua eta berdintasun politikak	4.476.352	5	2
Nafarroako Gobernua: gizarte enplegua	1.689.881	2	1
Nafarroako Gobernua: haur eskolak	1.479.981	2	1

Transferentzien kapituluan, Foru Komunitateko Administrazioarekin aurrekontu-informazioaren koherentzia berrikusteaz gainera, berriaz berrikusi dira gizarte zerbitzuen eta berdintasun politiken kudeaketarako jasotako transferentzia arruntak, bai eta kapitaleko transferentzia guztiak ere.

Egindako lanetik, ondorioztatzen dugu oro har kobrantza guztiak aplikatzekoa den araudiaren arabera justifikatuta daudela.

IV.5.10. Inbertsio errealak besterentzea

Udalaren 2017ko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzetik heldu direnak, 5,18 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarrearen guztizkoaren ehuneko 2,66 egiten dute. Batez ere lurren salmenta-operazioei dagozkie, haietan etxebizitzak egiteko, bai eta indibisoak desegitetik heldutako eskubideei ere.

Salmenta-eragiketen honako zerrenda hau hautatu da:

Lurzatia	Zertarakoa	Prozedura	Adjudikazio-prezioa, BEZik gabe
Alhondiga kaleko lurzattia	Etxebizitza babestua	Zuzeneko besterentzea	1.824.064
Arrosadia-Lezkairuko ARS-3 birzaitze-proiektuko l-36.3 lurzatiaren % 9,02.	Etxebizitza babestua	Zuzeneko besterentzea	130.952
AR-3ko zenbait lurzatiaren partaidetza zatiezinak	Etxebizitza babestua	Enkante publikoa	418.051
P9A poligonoko lurzatiaren % 9,08	Etxebizitza babestua	Zuzeneko besterentzea	1.877.747

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da espedienteak, oro har, toki esparruan aurreikusitako ondare-araubidearen arabera izapidetu direla. Halaber, eragiketa horien zenbatekoa diruzaintza-gerakinaren egoerari atxikitako baliabide moduan jaso da.

IV.5.11. Erakunde autonomoak

Haur eskolak

Langileriaren gastuen kapituluaren barruan, zentro bateko hilabete bateko nomina berrikusi dugu, eta egindako egiaztapenak arrazoizkoak dira; halere, langileen espediente pertsonaletan, honako gabezia hauek aurkitu ditugu:

- Graduaren/bosturtekoaren/familia-laguntzaren aitortpena ez dago berriazko ebazpen batean oinarrituta.
- Familia-laguntzak kontuan hartzen dira PFEZaren atxikipenerako, nahiz eta salbuetsitako baliabide bat izan.
- Oraindik ere ez da ageri zein erabaki edo arautan aurreikusi den eskola-jantokietako langileei mantenuagatik nominan gastuaren deskontua egiteko prozedura, ez eta gastuaren zenbatekoa ere

Kontratazioaren kapitulan, enpresa pribatuak egindako auditoria-txostenean salbuespena izan diren zerbitzuak berrikusi dira. Honako hauek dira:

Kontratua	Zenbatekoa, BEZa barne
Elikagaien hornidura	90.466
Garbiketarako hornidura	44.623
Beste zerbitzu batzuk birbideratzeagatiko luzapen tazitua	86.289

Egindako azterketaren ondorioz, egiaztatu ahal da aipatutako zerbitzuak kontratatzekeo adjudikazio-prozedurarik ez dagoela.

Gure gomendioak:

- *Behar diren ebazpenak onestea pertsona baten egoera administratiboan edozein aldaketa onesteko (gradua, antzinasuna eta abar), baldin eta lansari-kontzeptuetan aldaketak badakartzate.*
- *Tratamendu egokia ematea familia-laguntzarengatiko PFEZaren atxikipenen izapidetzeari.*
- *Haur Eskolak erakundeko langileen mantenurako esparrua arautzea, kasua bada gaurkotuz langileak otordu-zerbitzuaren kostu errealerako ordaintzen duen zenbatekoa.*
- *Zerbitzuen kontratazioak izapidetzea kontratazio-araudian ezarritako adjudikazio-prozedurak errespetatuz.*

Hirigintza Gerentzia

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazio prezioa (BEZik gabe)	Adjudikazio prezioa (BEZik gabe)	Adjudikazioaren beherapena (%)
Lezkairuko urbanizazio-proiektuaren 8. faseko obraren amaiera	Irekia, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	6	940.307	769.171	-18
Iturruma Berria-Trinitarioak Fasea urbanizatzeko proiektua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	7	689.692	528.856	-23

Oro har, kontratuen lizitazioak eta adjudikazioak, bai eta kontratuen exekuzioak ere, kontratuei buruzko legediari jarraituz izapidetu dira; halere, berrikusitako bi kontraturen ordainketa kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko epea gaindituta egin da.

Gomendatzen dugu behar diren neurriak hartzea araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epeak betetzeko.

IV.5.12. Sozietate publikoek adjudikatutako kontratuak

Kontratuen honako lagin hau berrikusi da Pamplona Centro Histórico eta Animsa sozietateetan:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Beharapena, %
Descalzos kaleko 47-53 zenbakietako lokala bulegoetarako egokitzea	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	3	299.680	282170	-6
Iruñeko Udaleko osoko bilkuretarako oinarritzko mantentze-lanak	Irekia, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	2	60.000	52.000	-13
Posta elektronikorako Relay konponbidea	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	2	43.215	31.795	-26
Iruñeko Udalaren suebaki perimetrala	Irekia, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	2	150.000	133.100	-11
Direktorio aktiboa	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	1	27.616	27.616	0

Egindako azterketatik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, espedienteak kontratuei buruzko esparruan aurreikusitako printzipio, prozedura eta formaltasunen arabera izapidetu direla; salbuespena 50.000 eurotik gorako adjudikazio bat da, Kontratazio Atarian argitaratu ez dena.

IV.5.13. Ingurune teknologikoa

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan. Daukaten garrantzia dela eta, Ganbera honek urtero Iruñeko Udalaren Kontu Orokorrari buruz egiten duen txostenean lehenengo aldiz ondorio batzuk jaso ditugu "ingurune teknologikoari" edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemei buruz eta Udalak informazioaren teknologien gainean egindako kontrolei buruz.

Informazioaren teknologien kudeatzailea Animsa udal sozietate publikoa da. 2018an, sistema informatikoen arduradun bat hartu da Gardentasun, Berrikuntza eta Hizkuntza Politikako Alorreko, sistema informatikoak koordinatu eta gainbegiratzeko eginkizunekin.

Azterketa hori egiteko, eta kontuan hartuta lan honetan sartzten den lehenengo urtea dela, galdegi orokor bat bidali eta dokumentazioa eskatu genuen; horrek aukera emanen zigun ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeko.

Honako konklusio hauek atera ditugu:

- Ez dago sistema informatikoen plan estrategikorik.
- Udal sozietateari enkargatutako jarduketak finantzatzeko urteko aurrekontu-zuzkidura bat badago. 2017ko ekitaldian, enkarguek 4.339.752 euroko gastua ekarri dute.
- Softwarearen plangintza eta eskuratzea urtero egiten dira.
- Garapen-, zuzendaritza- eta kudeaketa-eginkizunak ez daude argi bereizita, zeren eta analistek/garatzailerek batzutan produkzioan jarduten baitute; halaber, programatzaileek produkzioan aldaketak egiteko eta haren datuetara sartzeko aukera mugagabea daukate.
- Aplikazioak garatzeko metodologia bat badago, eta urtero dagokion auditoria egiten zaio.
- Aplikazioetako aldaketak kudeatzeko prozesuak ez du jasotzen aldaketa guztiak probatu behar izatea produkziara pasatu aurretik, ez eta amaierako erabiltzaileek probak onartzea ere.
- Segurtasun-politikari buruzko jarraibide batzuk badaude.
- Ez dago egiaztatuta segurtasunerako eskema nazionalaren arau-esparruaren aplikazioa, ez eta segurtasun dokumentuarena ere.
- Aplikazioetako aldaketak kudeatzeko prozedurak badaude, bai eta haien eragiketak ere: atazen plangintza, sistemen administrazioa, jarduera tokiko sarean monitorizatzea, zerbitzu-mailen definizioa eta gorabeheren kudeaketa.
- Datu eta programetarako sarbidea kontrolatzeari dagokionez, segurtasun modulu bat badago, berriaz garatua; horrek segurtasunaren kudeaketa zentralizatzeko aukera ematen du.
- Sare eta komunikazioen babesa egoki kudeatzen da, bai eta erabiltzaileen kudeaketarako prozedurak eta haiek identifikatu eta kautotzeko mekanismoak ere.
- Informazioaren jarraitutasunerako eta berreskurapenerako planak badaude.

Gure gomendioak:

- *Udalaren eta Animsa sozietatearen artean lerrokatutako sistemetarako plan estrategiko bat onestea.*
- *Softwarearen langintza eta eskuratzea sistemetarako plan estrategiko baten arabera egitea.*
- *Informazioa garatu eta kudeatzeko eginkizunak bereizita daudela segurtatzea.*
- *Aplikazioetako aldaketak kudeatzeko prozesua osatzea, horren barne direla aldaketak probatzea produkziara pasa baino lehen eta amaierako erabiltzaileek haiek onestea.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko abenduaren 14an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga